

“Dirulaguntzak jasotzea ez da batere erreza”



Asoma Proyectos Digitales S.L. enpresa 2005ean sortu zen, eta teknologia berrietan dihardu. Enpresaren jarduera nagusiak hurrengoak dira: web orrialdeak egitea, paperezko argitalpenak eta irudi korporatiboa. Halaber, langileei eta administrazio publikoari zuzendutako ikastaroak ematen dituzte.

Nola sortu zen ideia?

Behargintza Txorierrik emandako e-business teknikari-kurtsu batean lau lagunek elkar ezagutu genuen 2003an. Gure enpresa sortzea pentsatu eta, azkenean, hiru

lagunek eraman genuen proiektua aurrera.

Zeintzuk dira izan dituzuen zailtasunak?

Hasierako tramiteak nahiko korapilatsuak dira, eta administrazio publiko batzuek laguntza gutxi ematen dute. Enpresaren forma juridikoa aztertzen eta horren izena aukeratzen ere eman genuen nahiko denbora. Beste alde batetik, aholkularitza zerbitzu batzuek gure arazoak konpondu baino, proiektua moteldu egin ziguten, eta arazook guk konpondu behar izan genituen.

Zein motatako urratsak eman dituzue, ideia aurrera eramateko?

Behargintza Txorierritik laguntza handia jaso genuen, aholkularitza emateaz gainera, lehenengo urteetan lokala alokatu baitziguten oso merke. BBK Gazte Lanbidean fundazioak tramiteak betetzen lagundu zigun. Tramite horiek nahiko korapilatsuak dira, eta edozein akatsek ondorio larriak ekar ditzake. Horregatik, aholku eske profesionalengana joatea gomenda-

tzen dugu.

Eusko Jaurlaritzatik eta Enplegu Institutu Nazionaletik dirulaguntzak jaso ditugu eta, horiei dagokienez, dirulaguntzak jasotzea ez dela batere erreza argitu nahi dugu. Institutuz askok zalaparta handiz zabalitzen dute komunikabideetan gazte ekintzaileei zuzendutako laguntzak ematen dituztela, baina eurengana jo eta bizkarra ematen dizute.

Nola baloratuko zenukete esperientzia?

Positiboki. Gainera, kontuan hartu behar da enpresa berrientzat lehenengo hiru urteak ezinbestekoak direla. Negozioa sendotuz doa pixkanaka-pixkanaka, eta horixe da, hain zuzen ere, gure helburu nagusia. Hobetu eta negozio-bide berriak zabaltea dugu asmoa.

“Erabakiak zuk zeuk hartzen dituzu”

Gomendioak datozen sustatzaileentzat.

Lehenengo eta behin, pazientzia izatea. Enpresa abian jartzea ez da egun batetik bestera egiten den gauza, denbora inbertitu behar da. Eta irabaziak ere ez dira berehalakoak. Negozioarekin hasi eta hasierako tramiteei ekin bezain laster, zalantzak desagertuz joango dira kasu gehienetan. Era berean, lan-giro ona sortzea ezinbestekoa da.

Oso esperientzia positiboa dela uste dugu, egunero zerbait ikasten da-eta. Horrezaz gainera, ez zaude beste inoren menpe, eta erabakiak zuk zeuk hartzen dituzu.

“Tramiteak nahiko korapilatsuak dira, eta aholku eske profesionalengana joatea gomendatzen dugu”

Asoma Proyectos Digitales SL
Larragoiti Jauregia
Torrelarragoiti Ind. z/g, mod. 2
48170 – Zamudio
Telefonoa: 94 656 99 04
Faxa: 94 656 99 01

ZERBITZUAREN BIDEZ SORTUTAKO ENPRESAK

GALAISIA
LANTZAKI ETA NEKAZARITZEA
94 300 01100 - 94 300 31100
Larragoiti Jauregia

LUR ekodenda
94 656 99 04
Larragoiti Jauregia, 21 48170 Zamudio